



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

Jose M. Alzuri Vertiz  
Javier Bereau Miquelarena  
Maria Izaskun Altxu Ariztegi

2017ko urriaren 9an, 13:30ak direnean, Ohizkanpoko Bilkuran elkartzten dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. M. Jose Bereau Baleztena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel J. Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

## **1. IKASTETXE PUBLIKO BERRIRAKO URBANIZAZIOA.**

2017ko irailaren 15eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara 353/2017 Ebazpena, irailaren 5koa, Toki Administraziozuzendari nagusiak emana, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planean, Toki Programazioaren barrenean, osasun edo hezkuntza erabilerarako lursailen urbanizazioari dagokion atalean sartutako inbertsioen behin betiko zerrenda onesten duena, eta, horrekin batera, urtez urteko banaketa. Finantzatzeko ahal diren inbertsioen zerrendan dago Iturengo ikastetxe publiko berrirako urbanizazioa, 2017an egiteko.

Abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen IV. eranskineko 4. atalean xedatutakoa betez, aho batez erabakitzen da:

1. Ikastetxe publikorako lursaila urbanizatzeko proiektua onestea (2017ko otsailean egindakoa eta irailean aldatua). Francisco Javier Chocarro San Martin arkitektoak egin dituen proiektu zein aldaketa.

2. Inbertsioaren finantza plana onestea.

3. Diruzaintza soberakineko 9.519,22 euro afektatzea obrak finantzatzeko.

4. Erabaki hau jakinaraztea Toki Administraziozuzendari nagusiari.

Bestalde, Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legearen 73.2 c) eta 74. artikuluek xedatzen dutena kontuan hartuz, aho batez erabakitzen da:

1. “Ikastetxe publikorako lursailaren sarbidea eta zerbitzuen urbanizazioa” izeneko proiektuan dauden obrak kontratatze baldintzen agiria onestea, komunitate-publizitaterik gabeko prozedura negoziatua jarraituko delarik. Lanen aurrekontua 34.913,54 eurokoa da (gehi BEZa).

2. Proposamenak aurkezteko gonbidapenak bidaltzea 4 enpresa hauei: Construcciones Mariezcurrena SL, Sasoi Eraikuntzak SL, Apezetxea Anaiak SL eta Excavaciones Mikel Ubiria SLU.

Izaskun Altxu bilerara sartu egin da.

## **2. HIRIGINTZA HITZARMENA. ITURENGO U.E. 1.**

Iturengo alkateak, 2017ko irailaren 1eko 2017/31 Ebazpenean, erabaki zuen hasiera batez onestea kudeaketako hirigintzako hitzarmena, espedientea abiarazteko baizik ez, Iturengo U.E. 1 unitatea garatzeko egina. B.N.M. eta beste batzuk dira espedientearen sustatzaileak.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

Espedientea jendaurrean egon da irailaren 8ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean (174. zenbakia) eta ez du inork alegaziorik aurkeztu.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategineko (1/2017 LFD, uztailaren 26koa) 25. artikuluan ezarritakoari jarraituz, aho batez erabakitzen da:

1. Behin betiko onespena ematea kudeaketako hirigintza hitzarmenari.
2. Hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea alkateari.
3. Onespen hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

### **3. U.E. 1 UNITATEA URBANIZATZEKO PROIEKTUA.**

Iturengo alkateak, 2017ko irailaren 1eko 2017/32 Ebazpenean, erabaki zuen hasiera batez onestea B.N.M.k sustatutako Iturengo U.E. 1 unitatearen urbanizazio proiektua. Espedientea jendaurrean egon da irailaren 8ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta prentsan argitaratu ostean eta ez du inork alegaziorik aurkeztu.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategineko (1/2017 LFD, uztailaren 26koa) 134. eta 74. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, aho batez erabakitzen da:

1. Behin betiko onespena ematea urbanizazio proiektuari.
2. Onespen hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

### **4. DIRUZAINZAKO MAILEGUA.**

Ikusirik 45.000 euroko diruzaintza-mailegua hartzea behar dela ur-biltegiko obra ordaindu ahal izateko, eskaintzak eskatu zitzaizkien Nafarroako Rural Kutxari (CRN), Caixabanki eta Laboral Kutxari. Idazkariak irakurri ditu entitate haiek aurkeztutako eskaintzak:

- Nafarroako Rural Kutxa: epea, urtebete; interes-tasa finkoa, % 0,35; irekitze komisiorik gabe; amortizazioa, Nafarroako Gobernuak diru-laguntza kobratzen denean; bermea, diru-laguntza; formalizatzeko gasturik gabe, idazkariak sinatuko luke poliza.

- Caixabank: epea, urtebete; hasierako interesa, formalizatu aurreko 3. egunean argitaratutako urteko Euriborra gehi % 0,52 (% 0,35 eskaiazaren datan); gaindituaren interesa, formalizatu aurreko 3. egunean argitaratutako urteko Euriborra gehi % 2,52; komisiorik gabe; lotura ezinbestekoa da (asegururen bat kontratatu edota erreziiboak banketxearen bitartez kobratu).

- Laboral Kutxa: epea, urtebete; interes-tasa finkoa, % 0,36; erabilgarritasun ezaren komisioa, % 0,10.

Gaia eztabaidatu ondoren, proposamen onuragarriena aukeratzeko irizpidea jarraituz, aho batez erabakitzen da:

**Bat.** 45.000 euroko diruzaintza-mailegua kontratatzea Nafarroako Rural Kutxarekin (CRN), eskaintzan zehaztutako baldintzetan.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

**Bi.** Poliza sinatzeko ahalmena ematea alkateari.

**Hiru.** Erabaki hau jakinaraztea adjudikatariari eta eskaintzak aurkeztu zituzten beste 2 entitateei.

## **5. AURTIZKO BESTAK.**

Aurtizko gazteek Aurtizko bestetako aurrekontua aurkeztu zuten, 5.005 euroko gastuen zerrendarekin, eta bestak antolatzeko diru-laguntza eskatu. Aho batez erabakitzen da 2.800 eurotan finkatzea aurten emango den diru-laguntzaren gehieneko kopurua eta baldintza hauek ezartzea diru-laguntza kobratu ahal izateko:

1. Bestetako gastuen eta diru-sarreraren frogagiriak aurkeztu (fakturak, erreziboak, kontu korrontearen laburpenak). Haiek aztertu ostean erabakiko da behin betiko zenbatekoa, gehienez 2.800 eurokoa izango delarik.

2. Elkartea sortu eta erregistratu.

Eta bertzerik ezean, 14:30 direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.